



**JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,**

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko abenduaren 21ean, **652** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

"IKUSIRIK: 2020ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei musika ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: adinez txikiak izatea eta ondoren zehaztuko diren ikasketak garatzea: 1. mailako irakasgaiak, musika – hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu – taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein "Udal Musika Eskolatan".

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2019-2020 dagokionari da.

Oinarri horiek 2020ko apirilaren 03ko (39. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2020ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Aintzane Irazusta Arzallus andreak, epean eta era egokian, honako hauei dagokien beka eskariak aurkeztu ditu:

Izena eta abizenak	Ikasketak
<i>Iraitz Fernández de Larrea Irazusta</i>	Perkusioa Multzo perkusioa
<i>Eihara Fernández de Larrea Irazusta</i>	Trikitixa

IKUSIRIK: Udaleko Kultura Teknikariak 2020ko azaroaren 12an luzatutako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 320.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

**ZERA ERABAKITZEN DUT**

LEHENENGOA.- Iraitz Fernández de Larrea Irazusta eta Eihara Fernández de Larrea Irazusta-ren ordezkarietan Aintzane Irazusta Arzallus andreari, 2019-2020 ikasturtean musika ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horien zenbatekoa 597,82 €takoa da.

BIGARRENA.- Bekak berehala ordaintzea 320.480.001 partidaren pentzutan.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari eta udaleko Kultura Teknikariari jakinaraztea."

**BARRUNDIAKO Udala**  
(ARABA)



**Ayuntamiento de BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut,  
onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko abenduaren 21ean.

